# Haziak mintzo

## Dona Martine eskola



Larresoroko eskola pribatuan, obra handiak egiten ditugu: klase berria, pilota plaza ttiki bat eta zuzendariaren bulegoa eraikiak izanen dira. Biziki kontent gira gela berri baten ukaitea eta gure eskola arraberritua izaitea!

Bainan maluruski ez dugu diru aski barnea bukatzeko: kanpokoa egina da (murruak, teilatua, berinak), aldiz barneko lana ez: zola, elektrizitatea, tindu eta berogailuak falta ditugu. Artikulu honen bidez, jakinarazten dizuegu diru-kutxa bat sortu dugula *www.jaidemonecole.org/campaigns/1172* Internet gunean. Interesatuak baldin baziezte, klika eta pla-zerekin zuen dirua hartuko dugu!



Aski duzue martxoaren 13tik apirilaren 28a arte, Internet gunean sartzea!

Parte hartuz, gure eskolaren geroa segurtatzen duzue, gure ongizatean parte hartzen duzue!

Milesker handi bat artikulu hori irakurtzeagatik eta diru pixka bat emaiteagatik!

***Dona Martine eskolako ikasleak***

Euskal Haziak

euskalhaziak@gmail.com

# Haziak mintzo

## Bartzelonarako bidaia



Mayorgako 4. mailako sail elebiduneko ikasleak gira. 3. mailakoekin Bartzelonara egin dugun bidaia aurkeztuko dizuegu. 2023ko otsailaren 20tik 25era joan ginen. Goizeko 9etan Donibane Garazitik autobusez abiatu ginen. Bidean Zaragozan gelditu ginen hiria bisitatzeko eta bazkaltzeko, arratsean (20:00) Bartzelonara etorri ginen aterpetuko gintuzten familien ezagutzeko. Hiruko taldeetan banaturik, lehen gaua pasatu genuen. Familiek asterako afariak eta bazkariko ogitartekoak prestatzen zizkiguten.

Bartzelonako erakustoki eta monumentu anitz bisitatu genituen: Dali museoa, Batlo etxea, Camp Nou-a eta bere museoa, Guell parkea, "Pueblo español", Monjuich olinpiar jokoen estadioa eta azken egunean Portua itsasontziz bisitatu genuen. Horretaz gain txurroak dastatu genituen eta denbora libreetan Bartzelonako karriketatik erosketak egiten ibili ginen.

Gehienek Camp Nou-a maitatu genuen barnean ziren sari guziak, argazkiak eta estadioa orokorrean ikaragarria zelako. Lagunekin egotea ere anitz gustatu zitzaigun, haiekin hiri berri bat deskubritzen genuelako.



Gutien gustatu zitzaiguna Monserrat bisitatzea izan zen, lainoak zirelako.

Akiturik jin gira berriz etxera, baina pozez beterik.

***Louis, Naëlle, Nora, Izei eta Leire***

Euskal Haziak

euskalhaziak@gmail.com

# Haziak mintzo

## Mauleko ihauteriak




Martxoaren 18an, neskenegünarekin, Mauleko ihauteriak ospatü dütügü. Ihauteriak prestatzeko, büraso eta haur hanitx alkartü dira karroa egiteko eta apaintzeko.

Aurtengo gaia "kirola" züzün. Mozorro ezbardinak baziren: futbolari, dantzari, judoka… eta orano beste hanitx! Andereñoak eskiazalez beztitürik ziren! Aro ejerrarekin Mauleko karriketan ibili gütützü herriko beste karroekin. Jente



hanitx bazüzün! Gero, pelota plazan eküratü gütützü arrestiri askaria egiteko. Eta ürrentzeko, dantza bat egin dizügü eta prefos ta, Zanpantzar gaixtoa erre dizügü Arrestiria izigarri goxoa züzün Eskerrik hanitx bürasoeri karro eje horrentako! Lan bikaina egin dizü gü oro alkarrekin!

***Mauleko Jeanne d'Arc eskola***

Euskal Haziak

euskalhaziak@gmail.com

# Haziak mintzo

## Donapaleu atzotik egunera



Martxoaren 30ean, "Chemins Bideak" kultura zentrora joan gira erakusketa baten ikustera. Argazki batzuk ikusi ditugu: Donapaleu lehen eta orain aurkezten dutenak. Donapaleu anitz aldatu da. Karriketan ez zen gudrunik. Duela 100 urte jende anitz ibiltzen ziren oinez karriketan, aldiz orain auto anitz gurutzatzen ahal ditugu.

Lehenago 1.900 biztanle baziren eta orain 1.948. Ehun urtez ez da biziki emendatu ; familietan anitz haur baziren (batzuetan dozena bat arte) eta bizpahiru belaunaldi etxe batean bizi ziren. Bizimoldea ez zen batere berdina.

Gure arratsaldea joko batekin bukatu dugu: argazkiak behar ziren parekatu lehen eta orain araberan.

***Donapaleuko Etchecopar elebidun ikasleak***

Euskal Haziak

euskalhaziak@gmail.com